



Hezkuntza komunitateko kide agurgarriok,

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila joan den larunbatean Espainiako Gobernuak onartutako proposamen bat lantzen aritu da Euskadiko hezkuntza eragileekin.

Eusko Jaurlaritzak, proposamena onartzeaz gain, Espainiako Gobernuaren aldetik haren arautze juridikoa behar du, estaldura juridikoa, akordioa aplikatzeko.

Eusko Jaurlaritzak, une honetara iritsita eta Espainiako Gobernuak oraindik hartu ez duen erabaki horren zain, ez du hezkuntza-komunitatea tentsioan eta zain eduki nahi datozen egunotan, ezta -Hezkuntza Saila egiten ari den elkarrizketa-prozesuan- maiatzaren 18rako geletara itzultzeko prest dauden hezkuntza-sareak ere.

Hala, Hezkuntza Sailak eragileekin lanean jarraituko du egun hauetan eta datorren astean, maiatzaren 25ean, lehen aurreikusitako mailetako ikasleak ikasgeletara itzul daitezten.

Adeitasunez, Vitoria-Gasteizen 2020ko maiatzaren 14an.

Cristina Uriarte Toledo
Hezkuntzako sailburua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN